

**2001EKO ABENDUAREN 13AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BILERAKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamahirua

HILABETEA: Abendua

URTEA: Bi mila eta bata

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Pello Garaialde Goikoetxea
Jon Berbel Aiestaran
Josi Insausti Mujika
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Aimar Larrea Garin
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta
Jose Antonio Guirado Tristan
Leire Lopez Zurutuza

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA

2001eko azaroaren 8ko eta 14ko akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira berekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- KREDITU-ALDAKETA

Alkate jaunak, aparteko kreditu-aldaketaren berri eman du:

a- Aparteko kredituak

GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horiek gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek betetzeko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa-mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta horiek finantzatzeko aurrekontu-krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontusaila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
10.210.432.10.00	Azpiegitura Kilometroak	0	4.100.000	4.100.000
40.214.451.10.02	Eraik. iraup.:Usurbe Antzokiko oihala	0	800.000	800.000
41.211.422.10.01	Instal.iraupena: Alkartasuna Lizeoa	0	2.330.000	2.330.000
90.201.121.00.01	Oriamendi,18ko igogailuar. kuota	0	2.270.000	2.270.000
10.361.010.00.00	Berandutze-interesak	0	558.723	558.723
10.625.426.10.01	Altzariak: "Konekta zaitez"	0	1.500.000	1.500.000
20.625.313.21.01	Altzariak: Errekarteko etxebizitzak	0	1.082.159	1.082.159
40.625.451.10.01	Altzariak: Kulturako bulegorako	0	240.525	240.525
50.601.511.10.06	Azp. eta hirig.: S5eko asfaltaketa	0	3.363.756	3.363.756
10.733.431.10.01	Beasain Lantzen: garaj. 18. HA	0	5.047.626	5.047.626
50.601.511.10.07	8. HAKo hirigintza	0	9.000.000	9.000.000
50.201.413.00.01	Komun publikoen alokairua	0	800.000	800.000
50.211.413.00.01	Komun publikoen instalazioa	0	2.000.000	2.000.000

GUZTIRA		33.092.789	33.092.789
----------------	--	------------	------------

APARTEKO KREDITUAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontusailak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak/ gastuetako bajak
1.50.622.511.10.02	Azp. eta hirig.: 18. HAKo garajeak 0 kota	5.047.626
1.50.601.413.00.01	Komunak	10.000.000
2.00.00.870.000.00.01	Ezohiko kredituak finantz. aplikazioa	18.045.163
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		33.092.789

b- Kreditu gehigarriak

GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horiek gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek betetzeko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa-mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta horiek finantzatzeko aurrekontu-krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontusaila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoa
10.226.121.00.04	Hainbat gastu: juridikoak	2.000.000	3.000.000	5.000.000
20.211.456.00.01	Eraikinen iraupena: Erretir. etxea	3.068.000	359.600	3.427.600
41.211.422.10.01	Eraik. iraupena: Murumendi ikastetxea	1.445.000	250.000	1.695.000
90.211.121.10.03	Eraik. iraupena Errekarteko etxebizitzak	1.600.000	456.911	2.056.911
90.212.433.10.01	Inst. iraupena argiteria publikoa	7.500.000	1.250.000	8.750.000
90.227.432.90.99	Beste enpresak: konponketak	6.000.000	3.527.000	9.527.000

30.431.455.20.00	Euskaltegia	17.853.000	1.028.000	18.881.000
40.626.451.00.01	Kulturako informatika-tresneria	1.420.000	303.000	1.723.000
40.628.453.00.01	Igartza egokitzea	10.000.000	3.300.000	13.300.000
41.622.422.10.02	Murumendi ikastetxeko komunak aldag.	7.000.000	1.647.000	8.647.000
50.601.452.50.01	Igartzako futbol-zelaia: belar artifiziala	50.000.000	24.000.000	74.000.000
80.601.531.10.02	Baserri-bideak	3.000.000	4.549.611	7.549.611
10.823.455.01.01	Goierriko Industrialdea, S.A.-ko akzioak	33.000.000	857.370	33.857.370
GUZTIRA		143.886.000	44.528.492	188.414.492

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen kontusailak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak/gastuetako bajak
1.50.601.511.10.01	Ezkiagako obrak	2.031.193
1.10.626.455.20.01	Informatika-prozes. Ekip.: Euskaltegia	1.028.000
1.40.227.451.30.04	Ezkiaga Ludotekako kultur jarduerak	240.525
1.50.601.511.10.04	Azp. eta hirig.: Parrokiarako bidea	3.000.000
1.50.622.435.00.00	Eraik. eta eraik.: Bulego Teknikoa	5.000.000
1.80.601.531.10.01	Azpiegiturak: auzoak	171.811
1.10.141.322.10.01	Aldarteko labor.: Enplegu-sustapena	6.234.313
1.10.131.455.10.01	Aldarteko labor. Euskara	2.300.000
1.10.120.121.00.01	Oinarr. Ordaink.: Zerbitzu Orokorrak	2.696.064
1.10.121.121.00.00	Ordaink. Osagarr: Zerbitzu Orokorrak	1.769.623
1.10.332.010.00.01	Maileguen interesak	5.000.000
1.10.933.010.00.00	Maileguen amortiz.: enpresak	1.000.000
1.40.226.451.10.10	Jarduera soziokult. apartekoak	250.000
1.80.601.441.10.01	Azp. eta hirig.: Ur-sarea	4.377.800
2.00.00.870.000.00.01	Kreditu Osag. Finantzake. aplikazioa	9.429.163

GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA	44.528.492
------------------------------------	-------------------

Hitz egiteko txanda eman ondoren aho batez onartu dira proposatutako aparteko kredituak eta kreditu gehigarriak.

3.- ORDENANTZA FISKALAK

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): "Orain proposatzen dena onartzen ez bada, ordenantza fiskalak, orain dela hilabete eta erdi hasierako onespena emandako moduan geldituko dira onartuta. Bozkatuko dena, proposamenean azaltzen diren aldaketei dagokiena bakarrik izango da. Proposamena, hain zuzen ere, honako hau da:

GAIA: Etxez etxeko laguntza-zerbitzuarengatiko tasa
 Eguneko Zentroko zerbitzuen erabilpenarengatiko tasa
 Erakusleiho, toldo, beirarasa, erakustokiengatiko tasa
 Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga

Lehenik.- 2001eko irailaren 13an Udalbatzak egindako bileran behin-behineko onespena jaso zuten Etxez etxeko laguntza-zerbitzuarengatiko eta Eguneko Zentroko erabilpenarengatiko tasen tarifetan akatsa aurkitu da, ez baitira eguneratu 2002. urteko tasak kobratzeko oinarri diren baremoak. Gizarte Ongizate Sailaren proposamenaren arabera ondorengoak izan beharko lukete:

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua:

<u>Hileko diru-sarrerak</u>	<u>Euro/orduko</u>	<u>Ord. Gehiengoa</u>
331,28tik 393,79ra	0,68	%10 diru-sarrerak
393,80tik 456,29ra	1,34	%12 diru-sarrerak
456,30tik 518,79ra	1,99	%15 diru-sarrerak
518,80tik 581,30ra	2,64	%17 diru-sarrerak
581,31tik 643,80ra	3,31	%20 diru-sarrerak
643,81tik 706,31ra	3,96	%25 diru-sarrerak
706,32tik 768,81ra	4,61	%30 diru-sarrerak
768,82tik 956,33ra	5,27	%35 diru-sarrerak
956,34 €baino gehiago	5,61	

Eguneko Zentroa

<u>Hileko diru-sarrerak</u>	<u>Euroak</u>
331,28 €arte	32,31
331,29tik 393,79ra	96,95
393,80tik 456,30ra	129,26
456,31tik 518,79ra	193,89

518,80tik 581,30ra
581,31€tik gora

258,52
323,15

Bigarren.- Erakusleiho, toldo, beirarasa, erakustokiengatiko tasaren likidazioen aurkako erreklamazioen aurrean, kontzeptu horien kobratzeko datuak lortu eta mantentzeko zailtasunari buruz afektaturiko sailetatik jasotako kexen aurrean, erroldak arazteko dagoen premia eta hori guztia Udalaren aurrekontuko sarrera-egoeran kontzeptu horiek duten eragin txikia kontuan izanik, Hazienda-batzordeak kontzeptu horiengatiko tasak kentzea proposatzen du.

Hirugarren.- Julen Agirre Dorronsoro jaunak eta beste batzuk alegazioa aurkeztu dute Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotan %100eko hobaria eskatuz, Ibilgailu historikoak diren edo fabrikazio-egunetik zenbatuta 25 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten ibilgailuen jabeentzat, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga-araudiari buruzko, abenduaren 27ko, 4/1999 Foru Arauaren IV. Kapituluko, 11. artikuluko Hiru zenbakian xedatutakoaren arabera.

Hau guztia ikusirik, Hazienda-batzordeak, ondorengo akordio-proposamena egiten dio Udalbatzari:

1.- Eguneko Zentroaren erabilpenarengatiko eta Etxez etxeko zerbitzuarengatiko tasak biltzen dituen eranskinetako tarifen baremoak aldatzea.

2.- Erakusleiho, toldo, beirarasa eta erakustokiengatiko tasa kentzea.

3.- Julen Agirre Dorronsoro jaunak eta beste batzuk aurkeztutako alegazioa onartu eta %100eko hobaria ezarri Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan, Ibilgailu historikoak direnei edo fabrikazio-egunetik zenbatuta 25 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten ibilgailuengatiko zergaren kuotan. Hobariaz gozatu ahal izateko, horretarako den eskubidea frogatuz eskaera egin beharko da eta eskaera egiten den dataren hurrengo urtetik aurrera izango du eragina.

4.- Eguneko Zentroaren erabilpenarengatiko eta Etxez etxeko laguntza zerbitzuarengatiko tasen tarifak eta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren Ordenantza behin betirako onartzea 1. eta 2. puntuetan zehaztutakoaren arabera, beste Ordenantza Fiskalak behin betirako onarturik baitaude, beren aurka inolako erreklamaziorik jaso ez delako.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros siendo coherentes con la postura mantenida al aprobar inicialmente las tasas, vamos a abstenernos. No obstante, en relación a los baremos que se proponen para el Centro de Día, propondría eliminar el primer apartado y comenzar donde dice **De 331,29 a 393,79 €** Estamos hablando de un máximo de 5.000 pesetas de cuota mensual, pero con la escala de 331,29 a 393,79 son 16.000 pesetas y ya es un salto significativo. Esa es nuestra propuesta, pero en todo caso nos vamos a abstener.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Aldaketak puntualak direnez, gu ados gaude.”

Ana Asla andreak (EAJ/PNV-EA): “Jose Luis, estas anotaciones, de verdad, que las agradecería en comisión, ya que cuando se han estado tratando estos temas, no se han apuntado. Por otro lado decir que todo lo que está aquí, merced al convenio con Diputación va a cambiar totalmente. Tal vez de aquí a un año estaremos hablando de criterios completamente diferentes.”

Behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, aldez aurretik esanez, onartzeko gutxienez bederatz bi boto behar direla. Zentzu honetan Alkateak eskertu egin du Batasunaren jarrera, hartutako erabakia beasaindarrentzat garrantzitsua delako, izan ere, ez baitzekien jarrera hori zein izan zitekeen.

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, Batasuna, PP)
Abstentzioak: - (PSE-EE/PSOE)
Aurkako botoak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuz, onartu egin da hazienda-batzordeko proposamena.

4.- OHZ eta EJZ KUDEATZEKO HITZARMENAK

Alkate jaunak hazienda-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Ekonomi Jardueren gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga borondatezko bidean kudeatzeko hitzarmenak.

1994ko abenduan sinatutako hitzarmenen arabera, Udal honek Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga borondatezko epean kudeatzeko eskuordetza Gipuzkoako Foru Aldundiaren gain utzia du.

Udalak berak, zerga horiek kobratzeko kudeaketa hobea egin dezakeela ulertuta, Hazienda-batzordeak ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio Udaltzari:

1.- Indarrean dauden hitzarmenak salatu.

2.- Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga kudeatzeko Beasaingo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz-erlankidetzaz hitzarmeneko terminoak onartzea.

3.- Aipatutako hitzarmenak sinatzeko Alkate Jaunari baimena ematea.”

"Arrazoiak hauek dira: Foru Aldundiak kudeaketa egiteagatik kobratu egiten du. Bere garaian interesak handiak baziren, une honetan interesak txikiak dira eta guretzat ez da errentagarria. Esperientziak kontrastatu ditugu eta beren kontura hartu dituzten udaletan, kudeaketa hobetu egin da, azken finean udalek, beren errealitate ekonomikoa eta hiritarrak Foru Aldundiak baino hobeto ezagutzen dituztelako. Uraren kudeaketa ere, Ur Zerbitzuak enpresari eman geniola kontuan izanda eta ekonomi arloan lan egiten duen pertsona baten kostua %40 izan daitekeela ikusita, pertsona hori kudeaketa horretaz lasai asko arduratu daitekeela pentsatzen dugu eta udalarentzat hori benetan baliagarria izango dela uste dugu. Hau guztia kontuan izanda egin da proposamena."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

5.- TAXIAK

Alkateak hazienda-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Taxi-zerbitzua. Hiri-barneko tarifen onespena.

(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak aurkeztutako 2002. urterako tarifa-proposamena ikusirik eta dokumentazioa aztertu ondoren, Hazienda-batzordeak Udaltzari ondorengo AKORDIO-PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Ondoren zehazten diren 2002. urterako hiri-barneko tarifen onespena:

	Abiasaria	Ibilitako kilometroko	Itzarote-ordua
--	-----------	-----------------------	----------------

Lanegunak egunez	2,40€ 398,52 pta.	0,75 € 124,2 pta.	14,38 € 2.392 pta.
Jaiak eta gauak	2,40 € 398 pta.	1,20 € 199,8 pta.	22,59 € 3.758,4 pta.

Lanegunak egunez: Lanegunetan 07:00etatik 23:00etara.

Lanegunak gauez eta jaiak: Lanegunetan 23:00etatik 07:00etara eta jaiegunak egun osoan zehar.

2.- Euskadiko Prezioen Batzordeari akordio honen berri ematea berretsi, argitara ditzan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.- Hala eta guztiz ere, Andoni Antxia jaunak (Batasuna) honela dio: “Proposamenarekin ados gaude, baina besterik ez bada ere, azaltzea nahi genuke, badela garaia behingoz bailarako taxidunen zerbitzua baldintza onetan emateko, hau da, gaueko hamarretan edo hamabietan edozein tokitara joateko Beasainen taxi bat aurkitzea posible izan dadila.”

Patxi Plazaola: “Goiekin Foru Aldundiak aurkeztua du jadanik, eskualdez eskualde, taxidunen zerbitzuak nola izango diren. Gure eskualdeko taxidunak proposamen hori aztertzen ari dira.”

Besterik gabe proposamena, aho batez onartu da.

6.- GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA

Alkateak, hazienda-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A. elkartean partaidetza.

Udalbatzak abenduaren 21ean egindako bileran “GOIERRIKO INDUSTRIALDEA, S.A.” elkartean parte hartzeko erabakia hartu zuela eta honekin batera doan dokumentuan azaltzen denaren arabera, Elkarteko Batzar Nagusiak elkartearen izena aldatzea adostu zuela eta aurrerantzean “GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.” izendatuko dela kontuan izanik, Hazienda-batzordeak ondorengo AKORDIO-PROPOSAMENA egiten dio Udalbatzari :

1.- Ordiziako Udalari “GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.” elkarteko 22.129 akzioak erosi eta 33.857.370 pezeta (203.486,89 €) ordaintzea, akzioko 1.530 pezeta.

2.- Alkate-Lehendakariari akordio hau betetzeko beharrezko dokumentuak presta ditzan ahalmenak ematea.”

Erantsita doan dokumentua:

“Ordiziako Industrialdea, S.A.” eta “Lazkaoko Industria Lurra, S.A.” elkarreetako akziodunen Batzar Nagusiek, 2001eko ekainaren 21ean egindako bileran, “Lazkaoko Industria Lurra, S.A.” “Ordiziako Industrialdea, S.A.” elkarreak irentsi eta biek bat egitea onetsi zuten.

Aipatutako Elkarte irensleko Batzar Nagusiak “Ordiziako Industrialdea, S.A.” elkarrearen izena aldatzea adostu zuen, eta hemendik aurrera “Goierri Beheko Industrialdea, S.A.” deituko da.

Aipatutako akordioak 2001eko irailaren 11n gauzatu ziren eskritura publikoan Ordiziako Notarioaren, Ignacio Pagola Villar jaunaren, aurrean.

Ordiziako Udalak aipatutako “Goierri Beheko Industrialdea S.A.” elkartean 102.900 akzio ditu, guztira 832.135 akzio izanik.

Bat egitearen ondorio den ondare-balorea 1.273.166.000 pezetakoa da, 2000ko abenduaren 31n itxitako Bategite Balantzeen arabera.

“Goierri Beheko Industrialdea S.A.” elkarreak erantzuna eman nahi dio Goierri industri azpiegituren sustapen publikoaren kudeaketa eskualderatzeko gogoari, Goierri Beheko eskualdeko udalerrien artean (Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama, Zerain) lortutako adostasunaren ondoren aipatutako Elkarteko gizarte-kapitalaren %24,5eko udalen partaidetzari dagozkion akzioak birbanatzeko, gaur egun Ordiziako eta Lazkaoko udalek dituztenak.

Adostutako irizpideek ezarria zuten aipatutako udalerriek akzioen %35 harpidetuko lituzketela, udal-partaidetzaren %24,5i biztanle-kopuruaren arabera dagozkionak hain zuzen ere.

Bestalde, lortutako akordioak ezarri zuen industri azpiegiturak sustatzea aurreikusten duten udalerriek, udal-partaidetzaren gainerako %65 harpidetuko luketela.

Ordiziako Udalak ez du abian industri planik, eta, horrenbestez, bere akzioak saltzeko moduan dago.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute proposamena.

7.- HITZARMENAK

a- Andre Maria Zeruruaren Parrokiarekin lursailak trukatzeko hitzarmena.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola jaunari hitza eman eta honek hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Andre Maria Zeruruaren Parrokiarekin hitzarmena egitea.

2001eko ekainaren 8ko Andre Maria Zeruruaren Parrokiko idatzia aztertu eta behar diren neurketak egin ondoren, batzorde honek, honekin batera doan hitzarmena sinatzea proposatzen du.

Hitzarmen-zirriborroa:

Beasainen, 2001eko abenduaren.....an

BILDURIK

Alde batetik, JON JAUREGI BEREZIARTUA, Beasaingo Alkate-Lehendakaria. Ekintza honetarako eskuduntzak, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikulua ematen dizkio.

Beste aldetik, BITTOR GORRIA, Andre Maria Zeruruaren Parrokiako Erretorea.

AURREKARIAK

I.- Mila bederatzehun eta laurogeita hamahiruko irailaren hogeita hiruan Andre Mari Zeruruaren Parrokiak laurehun eta laurogeita hamazazpi (497) metro karratuko lursaila lagatu zion Udalari, eskritura publikoaren bidez. Eskritura publiko horretan nahiz eta 497 m² azaldu, errealitatean lursail horrek 619,92 m² ditu. (ikus honekin batera doan 1 zenbakia duen plano).

II.- Beasaingo Parrokiaren eta jabari publikoaren arteko mugak finkatzeko egindako neurketen arabera, zera azaltzen da, gaur egun Parrokiak 3.162,82 metro karratu dituela (eliza, apaiz-etxea eta seroretxea ez dira azalera

horretan sartzen), baina Parrokiak duen krokisaren arabera, berriz, 3.847,81 metro karratu ditu. Beraz, bien arteko diferentzia 685 metro karratukoa da.

III.- 2001eko ekainaren 8an, Andre Maria Zeruratuaren Parrokiako Erretoreak egindako idatzian, apaiz-etxearen hego-mendebaldera eta Seroretxearen ipar-mendebaldera dagoen lur-muturra, gaur egun udalaren izenean dagoena, parrokiaren jabetzara itzultzeko eskatzen du.

IV.- Hori lortzeko irtenbidea, truke-eragiketa bat egitea izango litzateke, baina aipatutako 685 metro karratu horiek jabari publikoa osatzen dutenez, ezin dira besterendu. Beraz, Parrokiak eskatzen duen lur-muturra, erabiltzeko lagapenean ematea erabaki da, 2001eko urriaren 16an hirigintza-batzordeak egindako bileran hartutako proposamenaren arabera.

Hori guztia gauzatzeko, bi aldeek ere kontratuak egiteko eta betetzeko duten ahalmena elkarri aitortu diote, eta bi aldeek dituzten eskubide eta betebeharrak arautzeko, dokumentu hau egiten da, ondorengo

HITZBAKETEKIN:

LEHENIK. Beasaingo Udalak, Andre Mari Zeruratuaren Parrokiari 215,89 metro karratuko lursaila lagatzen dio, berak bakarrik erabili ahal izateko. (ikus honekin batera doan 2 zenbakiko planoan).

Lursail horren mugak hauek dira:

Iparraldetik, apaiz-etxeko baratzea; Hegoaldetik, Seroretxea eta aparkalekua; Ekialdetik, apaiz-etxea eta Seroretxea eta Mendebaldetik, jabari publikoa.

BIGARREN. Erabiltzeko lagapenaren iraupena mugagabea izango da.

Eta guztiaren adostasun frogatzat bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatzen dute, goian aipatutako data eta lekuan.

Alkatea
Sinatua: Jon Jauregi Bereziartua

Parrokiako Erretorea
Sinatua: Bittor Gorria

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

b- Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena KZH GUNEA ireki eta ustiatzeko.

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

“Lehenik. “Konekta zaituz hirit@r” programaren esparruan Beasaingo KZH GUNEA ireki eta ustiatzeko lankidetzaren hitzarmenaren edukia onartzea.

Bigarren. Alkate jaunari aipatutako hitzarmena sinatzeko baimena ematea.”

Lehendakariak eta Jaurlaritzak izandako ekimenari aurre egiteko, Eudel eta Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu zuten, non Udalek eta Jaurlaritzak sinatutako hitzarmenaren arabera, herri ezberdinetan KZH guneak jarriko diren. KZH guneak zentro batzuk dira eta horietan herritarrek dohainik erabili ahal izango dituzte informatikako tresna guztiak, eta bertan gainera, prestakuntza emateko pertsona batzuk egongo dira. Horren helburua zera da, pertsona helduak teknologi berrietatik kanpo ez gelditzea. Kasu honetan gure konpromiso bakarra, lekua egokitzea da eta KZH gunea Ezkiagako Auzo Etxean kokatzea proposatzen dugu. Bertako bizilagunen batzordearekin hitz egin da gaiaz eta ondo ikusten dute. Ludoteka guztia liburutegira pasatuko da eta egun ludoteka dagoen tokia KZH gunea izango da. Hitzarmen honen iraupena 2003. urteko abenduaren 31 artekoa da. Une honetan, hori guztia egiteko aurreikusita dagoen kontusailarekin, Jaurlaritzaren hitzetan, 2004. urtera arte luzatuko da hitzarmena eta Jaurlaritzaren asmoa, hurrengo lau urteetan ere horrekin jarraitzekoa da. Helburua zera da, Euskal Autonomi Erkidegoko hiritar guztiak teknologi berriak ezagutzea eta menperatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek, proposamenarekiko beren adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz aho batez onartu da.

8.- PLANTILA. 2001. urterako Musika Eskolako plantila eta lanpostuen zerrenda.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Plantila honetan hainbat aldaketa proposatzen dira, EUFALEBARI egokitzen zaiolako.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz aho batez onartu dira, ondorengo Musika Eskolako plantila eta lanpostuen zerrenda:

BLMEPko 2001erako Plantila Organikoaren proposamena

2001. URTEA							
PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK							
LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	ORDAINKETA MAILA	SAILKAPEN TALDEA	EGOERA	HIZKUNTZ ESKAKIZUNA		OHARRAK
					KOEFIZIENTEA	DERRIGORTASUN-DATA	
ZUZENDARIA	1	13 + 4	B	FINKOA	4	1994	
IRAKASLEA	5	13	B	FINKOA	3	1994	
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	1994	%50 Plaza hau desagertzeko aitortua, Javier Arrillaga Viguria jubilatu zelako (2001-01-20).
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	1997ko iraila	% 40,10 (Txistua)
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	1997ko iraila	% 44,3 (Flauta)
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	1997ko iraila	% 38,3 (Saxofoia)
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	1999ko apirilaren 29a	% 22,10 (Perkusioa)
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	1999ko apirilaren 29a	%8,2 (Tronpeta)
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	1999ko apirilaren 29a	% 41 (Klarinetea)
IRAKASLEA	1	13	B	-	3	1999ko apirilaren 29a	% 8,98(Tuba)
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	2001eko abenduaren 13a	%43,4 (musika-lengoaia eta pianoa) Donostiako 3 zk.dun Gizarte-gaietarako Epaitegiak 2001-05-15eko datan emandako 217/01 zk.dun epaia betez sortutako plaza
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	2001eko abenduaren 13a	%94,4 (Gitarra) Donostiako 4 zk.dun Gizarte-gaietarako Epaitegiak 2001-09-24ko datan

							emandako 394/01 zk.dun epaia betez sortutako plaza
IRAKASLEA	1	13	B	FINKOA	3	2001eko abenduaren 13a	%42,4 (musika lengoia eta akordeoia) Donostiako 3 zk.dun Gizarte-gaietarako Epaitegiak 2001-10-02ko datan emandako 437/01 zk.dun epaia betez sortutako plaza
IRAKASLEA	1	13	B		3	2001eko abenduaren 13a	Trikitixa eta panderoa %73,5. Behin-behineko lanaldirako kontraturiko pertsonalarekin betea
IRAKASLEA	1	13	B		3	2001eko abenduaren 13a	Biolina %30. Behin-behineko lanaldirako kontraturiko pertsonalarekin betea
ADMINISTRARI-LA-GUNTZAILEA	1	8,5	D	FINKOA	2	1994	% 100

Denek jakiteko adierazten dena, Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu-legearen 127. artikuluan xedatutakoa betez.

BLMEPko 2001erako Lanpostuen Zerrenda

2001. URTEA														
Orde- na-zk.	Deitura	Lanpos- tu-kop.	Hornitze- ko era	Ordainketa- -maila EUFACLEBA	Sailkapen- -taldea	Arduraldia	Saila	Lanpostu horretarako exijitutako betebeharrak					Oharrak	
								Adskripzioa			Hizkuntz eskakizuna		Exijitutako titulazioa	
								Taldea edo eskala (1)	Azpieskala (2)	Mota (3)	Koefizien- tea	Derrigortasun- -data		
PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK														
1	Zuzendaria	1		13 + 4	B		BB	AB	ZB	ET	4	1994	MI	
2	Irakaslea	5		13	B		BB	AB	ZB	ET	3	1994	MI	
3	Irakaslea	1		13	B	% 50	BB	AB	ZB	ET	3	1994	MI	Desager- tze aitortua
4	Irakaslea	1		13	B	% 40,10	BB	AB	ZB	ET	3	97ko iraila	MI	Txistua
5	Irakaslea	1		13	B	% 44,3	BB	AB	ZB	ET	3	97ko iraila	MI	Flauta
6	Irakaslea	1		13	B	% 38,3	BB	AB	ZB	ET	3	97ko iraila	MI	Saxofoia
7	Irakaslea	1		13	B	% 22,10	BB	AB	ZB	ET	3	99-04-29	MI	Perkusioa
8	Irakaslea	1		13	B	% 8,2	BB	AB	ZB	ET	3	99-04-29	MI	Tronpeta
9	Irakaslea	1		13	B	% 41	BB	AB	ZB	ET	3	99-04-29	MI	Klarinetea
10	Irakaslea	1		13	B	% 8,98	BB	AB	ZB	ET	3	99-04-29	MI	hutsik (Tuba)
11	Irakaslea	1		13	B	% 43,4	BB	AB	ZB	ET	3	2001-12-13	MI	Musika- -lengoaia eta Pianoa
12	Irakaslea	1		13	B	% 94,4	BB	AB	ZB	ET	3	2001-12-13	MI	Gitarra
13	Irakaslea	1		13	B	% 42,4	BB	AB	ZB	ET	3	2001-12-13	MI	Musika- -lengoaia eta

														akordeoia
14	Irakaslea	1		13	B	% 73,5	BB	AB	ZB	ET	3	2001-12-13	MI	Trikitixa eta panderoa
15	Irakaslea	1		13	B	% 30	BB	AB	ZB	ET	3	2001-12-13	MI	Biolina
1	Adm. Lagun.	1		8,5	D	%100	BB	AO	AO		2	1994	B.E.	

OSAGARRIA: Zuzendaritza-eginkizunak egiten dituen irakasleak, maila--osagarria jasoko du ondoren adierazten den bezala eta eginkizun hori betetzen jarraitzen duen bitartean jaso ere.

ZUZENDARIAK: 13 FINKOA + 4 Zuzendaritza-osagarria = 17

- (1) A.B.= Administrazio Berezia; A.O.= Administrazio Orokorra
- (2) Z.B.= Zerbitzu Bereziak; A.A.= Administrazio Orokorreko Administrazioa
- (3) ET = Maila Ertaineko Teknikaria; TL = Teknikari Laguntzailea; OP = Ofizioko Pertsona

9.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Alkate jaunak esan du, adierazpen hau, gizon-emakume guztion bizitzeko, askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen aldeko adierazpen instituzionala onartzeko proposamena dela.

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): "Oinarri eta konpromiso horiek betetzeko honako ekimen hauek bultzatzeko erabakia hartzea proposatzen da:

1) Erakunde guztiek erantzun bateratua ematea terrorismoak eragindako atentatu eta hilketen aurrean. Beste batzuen artean, honako neurri hauetan gauzatuko da erantzun hori:

- a) Euskal erakunde guztiek gaitzespen bateratua kaleratuz gizon-emakumeen bizitzaren eta askatasunaren aurkako edozein atentatu gertatzen den bakoitzean eta euskal gizarte osoak indarkeriaren biktimen senitarteko eta lagunetikiko elkartasuna bultzatuz.
- b) Ekintza horiek gaitzesteko antolatzen diren manifestazioetan parte hartzeko deialdi bateratua eginez, beti ere, kasuan kasuko familiaren eta udalaren borondatea kontuan izanik.
- c) Terrorismoaren aurkako gizartearen sentsibilizazio eta erantzuna biltzen dituen lema bateratu hau erabiliz: Bakea eta Askatasuna, ETA ez.
- d) Gertatzen den hilketa bakoitza salatzen eta dolua adierazteko 15 minutuko geldialdiak eginez, Udaletxe, Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritza eta gainontzeko erakundeetako egoitzen aurrean.

2) Toki publikoetan gizon-emakumeen askatasunaren eta segurtasunaren aurka jar daitezkeen mehatxu eta irainezko adierazgarri grafikoak kendu edo ezabatzea eta toki pribatuetan ere horrela egin dadin erakundeen laguntza eskaintzea.

3) Gizaki orori dagozkion giza eskubideak defendatzeko bultzatzen diren gizarte-ekimen guztiak burutzeko Udalen eta beste erakundeen eremu publikoak eskaintzea eta egin nahi diren manifestazioak aipatu eskubideen aurkakoak badira, toki horien erabilera ukatzea.

4) Giza eskubideen eta indarkeria-ezaren aldeko komunikazio eta gizarte-sentsibilizatorako kanpaina instituzionala erakunde guztien artean garatzea.

5) Gizon-emakume guztien askatasun eta eskubideen aurkako eraso edo kale-borrokako ekintzei aurrea hartzeko eta saihesteko beharrezko segurtasun-neurriak bultzatzen koordinazio eta komunikazio bideak indartzea.

6) Gizaki orori dagozkion giza eskubideen eta justiziaren babes arduratsuaz, bakea, normalkuntza politikoa eta elkarbizitza lortzeko asmoarekin jaio daitezkeen ekimen guztietan era aktiboan parte hartzea.

7) Adierazpen honekiko atxikimendu-kanpaina euskal udalen artean bultzatzea, hiritarren aldetik ahalik eta zabalkuntza eta partehartzerik handiena izan dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Nosotros vamos a votar en contra porque creemos que el texto del documento de Ibarretxe queda paupérrimo en relación con el título que se le ha puesto. Ibarretxe no tuvo en cuenta en la redacción del documento ninguna propuesta ni del PP ni del PSOE. Creemos también que el Lehendakari, debe replantearse la posibilidad de incorporar un refuerzo ético a su documento y conseguir acuerdos y compromisos de mayor calado.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Kasu honetan gure jarrera abstentzioarena izango da. Alde batetik, Herri honetan zerbait gaizki egiten ari garen inpresioa dut. Geure egoera politikoa erdi gaixotarik dago eta ez ditugu gauzak ondo egiten. Gu adierazpen honen edukiaren aurka ez gaude. Ados gaude hemen proposatzen denarekin eta Lehendakariaren adierazpen hutsa izango balitz, seguru aski baiezkoa emango genioke. Baina adierazpen instituzional bezala dator eta sinatzen dutenak, Lehendakaria, Josu Bergara, Roman Sodupe eta Karmelo Sainz de la Maza dira. Zergatik ez du sinatu Ramon Rabanera, Arabako Diputatu Nagusiak?. Zergatik ez daude, adibidez, hiru hiriburuetako Alkateak?. Ez ahal gara gai horrelako adierazpen instituzionala denok batera egiteko?. Adierazpen instituzionala egin aurretik, Lehendakariak beste guztiekin adostasun batera iritsi behar luke.

Gogoeta pertsonal moduan esango nuke, talde politikoetan arazoak daudenean, adibidez, EAJ alderdian bertan, Joseba Arregi, Gebara eta kritikoak diren beste pertsona batzuk, eta partiduetan marjinatuta gelditzen direnak, Batasuna barruan, hainbeste odol eta atentatuekin aspertuta daudenak, Aralar sortzen dute edo etxera joaten dira. Geure alderdian bertan, kritikoak izan direnak eta batzuk hilda daudenak, adibidez, Lluch, Juan M^a Jauregi. Zerbait gertatzen zaigu gure mundu politikoan eta egunkariak irakurri ezker, konfrontazio berriak bakarrik daude. Azkenekoa egun hauetan parlamentuan gertatzen ari dena. Iruditzen zait, mesede eskasa egiten duela horrelako adierazpenak, ez edukiagatik, baizik eta proposatzen den moduagatik. Zeren

izugarritzko beharra edo egarria daukagu honelako adierazpenak egiteko, baina bateratuak eta ez bakarkakoak. Eredu bat jarriko dut. Aste honetan bertan Nobel saria, Kofi Annan jaunari eman diote, kontsentsu zabalak bilatzeko ahaleginak egin dituelako.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Gure jarrera aurkakoa izango da eta hori arrazoitzeko ondorengoa adierazten dugu:

1.- Pertsona orok bizitzeko, askatasunerako eta integritate fisikorako eskubidea du. Tamalez eskubide hauek urratuak izaten dira gatazka politikoak ematen direnean. Hori dela eta Euskal Herrian eragile politiko eta sozial guztion zeregina da, hiritargoak bere eskubide zibil eta politiko guztiak egikaritu ahal izateko beharreko baldintzak sortzea. Gogoan hartuta eskubide guzti-guztiak era global eta aldi berekoan onartuak eta egikarituak izan behar dutela. Indarrean dagoen nazioarte-mailako legediaren arabera eskubideak egikarituak izateko dira eta ez dute ez ezberdintasunik eta ez hierarkiarik.

2.- Euskal arazoa izenarekin ezagutzen duguna jatorri eta izaera politikoa duen gatazka historikoa da, eta bertan, Estatu Espainiarra eta Frantsesa inplikaturik daude. Beraz konponketak ere derrigorrez politikoak izan behar du.

3.- Gatazka politikoaren sorrera eta mantentzeari buruzko ulermoldeak desberdinak izanik, berau, lurraldetasuna eta erabaki-subjektua, burujabetza politikoan adierazten denez, konpondu beharreko oinarritzko arazo gisa aurkezten zaizkigu.

4.- Autodeterminazio eskubidea, giza eskubide oinarritzko eta kolektibotzat hartua, herri guztiei aitortu behar zaie. Munduko edozein herriri bezala, Euskal Herri osoari ere autodeterminazio-eskubidea dagokio eta horren aitortza egitea dagokie Estatu Espainolari eta Frantsesari, askatasun eta demokrazi ideietan oinarrituta dagoen heinean. Autodeterminazio-eskubidea Euskal demokrazia eraikitze oinarria da eta Euskal Herrian bakea lortzeko tresna da. Inongo estaturik ezin da demokratikotzat jo baldin eta bere menpean hartzen dituen herriei, askatasunez, autodeterminatzeko eskubidea onartzen ez badie.

5.- Elkarriketa- eta negoziazio-prozesu irekiaren bitartez bakarrik gorputz daiteke gatazka politikoaren konponketa, inplikaturik dauden eragileak baztertu gabe eta euskal gizarte osoaren eskuartzearekin eginda.

6.- Negoziazioak osotasunezkoa izan behar du, hau da, arazoa osatzen duten eta bere ondorio diren kontu guztiak aztertuz eta erantzunak emanez. Horregatik, konponbidea erabakitzeko negoziazioak, ez du inposaketarik izan

behar. Euskal gizartearen aniztasuna errespetatu behar da eta proiektu politiko guztiak, erdiesteko baldintza berdinetan kokatu behar dira. Euskal Herrian demokrazia sakondu behar da. Hau da, Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den herritarrek beren hitzaren bitartez adierazi behar dute eta inplikaturik dauden estatuak erabaki hori errespetatu egin behar dute. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

7.- Euskal gatazka politikoari irtenbide politikoa eman behar zaio. Aldiz, Estatu Espainiar eta Frantsesaren jarrerak, Euskal Herriarekiko eskubide demokratikoak errespetatu beharrean, euskal hiritarren kontra errepresioa erabiltzean dautza, atxiloketak, torturak, presoan sakabanaketa, gerra zikina eta abar. Egun, Espainian indarrean dagoen lege antiterrorista delakoak, pertsonen eskubideak ezabatzen ditu eta ez du giza eskubideen hitzarmen europarrak, nahiz nazioarteko itunek agintzen dituzten eskubideak errespetatzen. Horra hor tortura-salaketak eta horien inguruan emandako epaileen erabakiak. Hori dela eta, Udal honek zera eskatzen dio Gasteizko Jaurlaritzari: Ertzaintzak ez dezala lege berezi hori erabili.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Lehen aipatu den bezala, herri honetan politikoki blokeatuta gaude eta bloke horren aurrean adierazpen honek zerbait proposatu nahi du. Jakin nahi nuke beste alderdiek hemen azaltzen den mamiari ezezkoa zergatik ematen dioten. Aztertu beharko genuke denok, blokeo horien eragile zeintzuk diren. Lehendakaria izan daiteke edo bakoitzaren jarrera izan daiteke. Nik uste dut desblokeatzen hasi beharko dugula. Itxaropenerako mezua bota nahi nuke. Zerbait gaizki egiten ari garenen ordez, nik esango nuke zerbait gehiago eta hobeto egin beharko genukeela. Beste aldetik, nik uste dut momentua iritsi dela, eta hemen arrazoiak formazkoak badira, eta kontrako zergatirik ez badago, goi-mailako instituzioetan adostasun batera iritsi ez arren, esfortzu txiki bat egitea eskatuko nuke eta udal honetan behintzat, nahiz eta formatan eztabaidagarria izan, edukietan ados gaudela denak bateratu beharko genituzke. Aipatu baita ere, komunikabideak ez direla herri honi lasaitasuna ematen ari eta haustura soziala probokatu nahi dutela. Horren aurrean zerbait egin behar dugu. Izan gaitezen ausartak eta formatan diskutigarria izan arren, edukietan ados bagaude, jo dezagun batera. Kofi Annanen adibidea jarri da, baina hori zalantzan jarri da. Lehengoan batek esan zuen bezala, Kofi Annani saria, bakea lortzeagatik baino gehiago, gerrarik sortu ez duelako eman zaiola.

Andoniri esango nioke, bere adierazpen horretan aurrekari bat falta zaiola. Aurrekari hori, indarkeriari ez, esatea da. Hori alde batera uzten bada, denok izango gara gai oinarri sendo batzuk adosteko.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSPOE): “Solamente indicar respecto de lo que ha dicho Patxi, de que si arriba no se ponen de acuerdo, vamos a

hacer un esfuerzo desde abajo para ponernos de acuerdo. Yo iría más adelante. Hagamos ese esfuerzo. Nosotros estamos dispuestos siempre a hacer este esfuerzo, de hecho en este Pleno creo recordar que hemos aprobado mociones, que aún no estando de acuerdo con el modo de plantear las cosas, por dar una muestra de que aunque sea con buena voluntad vamos a seguir hacia delante, hemos apoyado. Pero los resultados son los que son. Nosotros hoy mismo estaríamos dispuestos a dar un paso más, y sería una decisión revulsiva en Euskadi, si Beasain como pueblo tomase una decisión unánime diciéndole a ETA que no y que no queremos más violencia. “

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Gauzak fundamentuarekin esan behar dira. Su artifizialak egiteko edozein gaude prest edozein momentutan, baina ezertarako ez balio izatekotan, gu ez gaude prest, zeren eta demagogia egitea besterik ez da.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV-EA)
Aurkako botoak: 5 (Batasuna, PP)
Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, onartu egin da gizon-emakume guztion bizitzeko, askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen aldeko adierazpen instituzionala.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, ondorengoak aurkeztu dira:

BISTA ALAI KALEAN ETXEBIZITZAK HUSTEA

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Hacia el día 20 de noviembre por la noche hubo una llamada diciendo que había grietas y movimientos en el portal nº 2 de Bista Alai. Me personé allí con Agustín, vimos que había riesgo aparente y decidimos desalojar aquella misma noche las viviendas de Bista Alai, nº 2. La responsabilidad del Ayuntamiento es garantizar la seguridad de todos los vecinos de Beasain y en ese sentido entendíamos que el aspecto que tenía el edificio hacía que tuviéramos que desalojar el mismo y los ocupantes del mismo se alojaron en viviendas de familiares. Uno de los bajos de ese portal estaba abnegado de agua y una viga había cedido, pero en principio el muro no se había movido y se adoptaron una serie de medidas. Cuando se estaba avanzando en ese proceso, el viernes pasado unos vecinos vinieron al Ayuntamiento diciendo que esa noche habían aparecido más grietas en más

portales de la calle Bista Alai. El viernes al mediodía acudimos al lugar Jose Ignacio, los dos arquitectos, Patxi y yo. Los técnicos hicieron una revisión ocular durante dos horas, y viendo que el muro no se había movido, nada hacía pensar que hubiera mayores riesgos. Se colocaron una serie de testigos en las grietas que había para ver como evolucionaba. Eso ocurrió el viernes, el sábado durante el día no hubo ningún movimiento y el sábado por la noche es cuando el muro cede. También el domingo tres paneles de sujeción del muro ceden 5 cm., y se ordena desalojar toda la calle porque también en los impares aparecen algunas grietas. A la mayoría de los vecinos se les alojó en los hoteles, aunque algunos prefirieron ir a casas de familiares. El lunes analizamos como estaba el expediente administrativo de concesión de la licencia y parece que está todo correcto. El estudio geotécnico es correcto, está visado y firmado por técnico competente, así como el proyecto de ejecución. Existe constancia del seguro de responsabilidad civil y el informe técnico también es favorable. La actuación del Ayuntamiento por lo tanto al otorgar la licencia ha sido correcta. El Ayuntamiento se ha puesto en todo momento a disposición de los vecinos, y se les ha intentado ayudar en lo que se ha podido. Los vecinos han constituido una comisión y han contratado una defensa. El Ayuntamiento el lunes contrató los servicios de asesoramiento y apoyo de IKAUR, de Mikel Salaberria y Agustín Larrea, que son ingeniero y geólogo respectivamente, y el lunes se mando una resolución de Alcaldía a la promoción, requiriéndoles la adopción de una serie de medidas consistentes en rellenar de tierra hasta el segundo nivel de los anclajes y anclar el muro con una serie de refuerzos metálicos. En el muro pantalla se hace una zanja hasta encontrar roca y se va rellenando con hormigón hasta abajo. En principio el muro tiene que llegar a una profundidad de más de metro y medio de donde se encuentra la roca, y luego se va quitando la tierra y se va anclando. Lo que ha sucedido es que este muro, no sabemos muy bien por qué, ha cedido. Hasta que no se sepa exactamente qué medidas hay que tomar para asegurar la estabilidad del muro, se les ha exigido la adopción de las medidas provisionales que antes he comentado. Nuestros técnicos van a hacer un informe completo de lo que ha pasado el lunes y como todo apunta a que la solución definitiva va a ser la de reforzar los anclajes, lo que se está haciendo es adelantar los trabajos previos que faciliten esa labor, ya que desde el momento en que se adopta la decisión de hacer ese trabajo hasta que materialmente se puede ejecutar si no se prepara previamente, pueden pasar cuatro o cinco días y conviene acelerar el proceso de aseguramiento del muro que consiste en continuar rellenando con unas plataformas de escollera y de tierra para que una vez todo cubierto se empiece con una maquinaria a anclar el muro. La primera vez que sucedió, esto es, el 20 de noviembre, los técnicos sugerían que la obra continuara porque lo que garantiza la estabilidad, es la estructura de la casa. Conviene avanzar en la obra para echar la solera de hormigón, que empieza a atar los muros.

A la empresa promotora Etxeberrikoa Eraikuntzak S. L., se le dió la licencia y este a su vez contrata con una empresa que es Cromsa, que es una empresa multinacional de primer nivel para ejecutar el muro. Etxeberrikoa le adjudica a esta empresa la ejecución del muro y les facilita el estudio de cálculos y el estudio geotécnico, pero estos a su vez el trabajo de anclajes subcontratan con Teicsa.

La promotora ha asumido todos los gastos de realojo de los vecinos y se ha puesto en contacto con una inmobiliaria de Beasain para alquilar viviendas a estas familias, ya que algunos todavía están en hotel. Con respecto al número 6 de Bista Alai, nuestros técnicos entienden que puede estar habitable, pero nosotros como Ayuntamiento, por prudencia, dijimos que nos lo habitaran. Estamos a la espera de tener los informes y en función de eso decidiremos si los de Bista Alai 6 pueden realojarse en sus casas o no.

Aunque en un primer momento los vecinos estaban muy nerviosos, en general su comportamiento ha sido muy bueno.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Aunque el Ayuntamiento haya actuado legalmente como es debido, si creo que debe de estar muy encima para que socialmente el tema se resuelva lo mejor posible.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “La empresa ha asumido todos los costes, pero en un primer momento sin saber si eso iba a ser así, el Ayuntamiento les dijo que estaría dispuesto a correr con los gastos.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, hogueiak eta berrogeietan amaitu da batzarraldia eta nik, Idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta ziurtatu dut.